

ERREGISTRO ZIBILA: HARI-HARIAN SEGITZEN DUGU

Albiste eskasek ez dute etenik. Hasiera-hasieratik -erregistro zibilaren pribatizatzeke lehendabiziko saioekin- gero eta okerrago ibili gara. Arestitxoan gehienek ziurtzat jotzen zuten erregistro zibilarena konponduta zegoela; “lortu dugu” esaten zuten harro, aurretik ere egin zuten moduan. Berri onak izan arren, LABen ez genuen konfiantzarik. Justizia Ministerioak honako hau adierazi zuen: mandatu baten bidez jabetza-erregistratzaileen esku utzi nahi izan zuen erregistro zibila pribatizatzeke asmoa bertan behera geratuko zela; eta erregistro zibilak publikoa eta doakoa izaten jarraitzea nahi zutela, langile publikoek artatua, hain zuzen. Bere asmoa, ordea, lasaitasuna helaraztea baino ez zen, helburu jakin batekin egin ere: langileak eta sindikatuak desmobilizatzea. Bien bitartean, erregistro zibilak eskumenez husteari ekin dio: nazionalitate espainarra izapidetzeko ahalmena galtzea eta 2017ko ekainaren 1etik aurrera notarioek izatea ezkontza espedienteak izapidetzeko ahala. Eta hori guztia, egiteko asmo duen enplegu-erregulazioko espedientea zuritze aldera, erregistro zibilaren inguruko 20/2011 Legea erreformatzeko zirriborroak jasotzen baitu barruti judizialak urritu nahi dituztela.

Ematen ziren zerbitzu guztiak ez badira leheneratzen eta ez badira berreskuratzen eta mantentzen funtzioak, ezinezkoa izango da lanpostu guztiei eustea.

Badago beste kontu bat garrantzi handikoa: 2011ko legeak ahalbidetzen zuen erregistro zibilaren gaineko ahalmen betearazlea eta kudeaketa ahalmena autonomia erkidegoetara transferitzeko aukera; baimendu ere egiten zuen erregistroko arduraduna erkidegoko funtzionarioa izatea. Dena den, gehiengo sindikala letraduei (lehen idazkari judizialak) eman nahi diete erregistro zibilaren ardura, inor gehiagori ez. Dakigunez funtzionario horiek transferitu gabe jarraitzen dute, hortaz, ministerioaren eta berorren aginduen menpe.

LABen apostua hasieratik izan da eskumen guzti-guztiak berreskuratzea; erregistro zibilak erkidegoetara eskualdatzea, betearazteke eta kudeatzeko aginpideak barne; eta arduraduna Eusko Jaurlaritzako funtzionarioa izatea. Ez da onargarria erregistro zibileko arduraduna transferitu gabeko funtzionarioa izatea. Erregistro zibileko arduradunak letraduak izatea nahi izanez gero, delako kidego horren gaineko eskumena eskatu behar izan zen. Hastapenetik

LABen helburua izan da, langileez gain, Eusko Jaurlaritza berak har zezala erregistro zibila mantentzeko konpromisoa eta Madrili eska ziezazkiola aginpideak.

Beste behin ere, Justizia Ministerioak autonomia erkidegoak gutxiesten ditu: eskumen betearazlea eskuratzeko aukera ezabatu eta kudeaketa mugatu egin nahi dizkie. Horiek horrela, gure borroka argia da, erregistro zibilaren gaineko ahalmen guzti-guztiak berreskuratzea eta transferitzea autonomia erkidegoei.

Izan ere, egoera iraultzeko lema alderantzizko norabidean jarri ezean, bake epaitegi gehienak eta erregistro zibil asko nola deuseztatzen dituzten ikusi beharko dugu, berandu baino lehen.

Beraz, geratzen zaigun tresna borroka da, beti bezala. Lanpostuei eusteaz gain, eskumen den-denak lehenengoratzeari ere lortu behar ditugu, batak bestea barik erregistro zibila ezinbestez desagertzea ekarriko duelako.

2017-02-28